

Buruz idatziz, 1986.urtearen amaierara jo behar dugu kazetari talde batek Bilboko Prentsa Elkarteak, FAPEko hiru edo lau handien artean zegoena beti, berreskuratzeko gogo jarri zutenean. Eta ustekabez bete ninduen erabaki batean, 1987.urtean sartuta jada – hau da, lan gogorra eginda zegoen- Zuzendaritza-batzorde berrirako hautagaitzara gehitzea proposatu zidaten. Batzuen eta beste batzuen artean, Fidel Bikandi, Blanca García Egocheaga, José Manuel Alonso, Lourdes Mateo... ezinezkoa izan zen ezezkoa ematea gauzak nola egin zituzten ikusita.

Proiektutik bi gauza nagusi erakartzen ninduten, sustatzaileek oso ondo pentsatuta zituztenak. Lehenengoa, lanbidearen barneko batasun nahia, orduan guztiz urratuta zegoena, Asteleheneko Orriaren desagertzea ekarritako krisi handia dela eta. Eta orduan ondo egin zuten *lanbide errearen* alde egin zutenean, beste baldintza eta jatorrien gainera. Bazegoen denbora ñabarduretan sartzeko.

Bigarrena, estamentu profesional guztiak nabaritu Zuzendaritza-batzordearen presentziaren bitartez: lanbidearen atalik haundiena osatzen zuten ofizio eta funtzio guztiak barnean izan behar zuten; gainera, kidesun pertsonalez gain, komunikabideek bertan presentzia izatearen irizpidea nagusitzea zen helburu.

Niretzat daukat Elkarteak, eta orain bere anaia de Elkargoak ere, 30 urte baino gehiago baditu, mirari horren misterioa sustatu zutenen pentsatze onean erroto zen, eta hauen artean ni ez nitzen egon. Eta ez soilik pentsatu, iraunkortasunez ere borrokatu zutela esango nuke denbora joan ahala mantentzeko. Lehen talde hark, zeinak ni hura nagusitzeko eskuzabaltasuna izan zuena, beste guztia oso erraza egin zuen. José Manuel Alonsotik hasita, lehendakariordetzan, María Salvadorrekin bukatuz, idazkaritzaz eta bulegoko gauzetaz arduratzen zena. Blancak eta Fidelek indargabetzen uzten ez zuen ahalegin kolektiboa izan, baina inoiz ez zen bakoitzaren ekarpena falta izan: Sarita Estévez, Roberto Zarrabeitia, Salvador Gómez, Ricardo Abeijón, Amalio Roca, Begoña Zalbidea, David Barbero, Iñaki Berasategui, Alfredo Alday eta Joaquín Ortigosa

Talde horren guztiaren trebetasuna dela eta Elkarteak FAPEn pisu esanguratsua lortu zuen denbora laburrean; beste elkarteek Batzar Orokorra Bilbon izatea proposatzera heldu ziren eta baita gerora, gure Elkarteak Federazioko presidentetza hartzea. Irrika, ez dugu zertan geure buruari gezurrik esan, ez zen erreza izan. Lehenengo eta behin, Euskadi neta Espainia mailan ere, lanbide-kide kopuru haundienaren konfidantza izan behar genuen. Gero, Elkarteak gizartean eta euskal-instituzioetan barneratu behar zen; errespetuz hartu gintuztela esan behar da. Eta jarraikortasun konponbide ezarekin lanbidearen arazoei aurre egin. Lehen ordu horretakoak dir, adibidez, etorkizuneko Elkargoaren –eta gaur errealitate dena- eraketaren inguruko

lehenengo azterlanak; ordukoak dira baita ere ikastaro monografikoek antolaketa, hala nola autoenplegua edo ingurugurioaren gainekoak.

Baina baita ere, Bilboko aditu aparten laguntzari esker gerora Kazetaritza Lanbidearen Kode Deontologikoan errotuko ziren aurretiazko ikerketak egin ziren. Hauetako epigrafetako askok letra eta tinta bilbotarra dutela esan daiteke, larkeriarik gabe.

Ez nuke nostalgiaz esango, oso gutxi gustatzen zaidan kontzeptua da, baina urte haiek gogora datozkit –ahaztezinak, baina ez errezak- esker on sakonez. Bertan lan handia egin zen fokuetatik eta protagonismotik kanpo, ordu askotako isilezko adikunea izan zen. Gero, bere benetazko egileek, ni argazki hartara gehitzeko eskuzabaltasuna izan zuten.

*Antonio Petit Caro*  
*Lehendakaria 1987-1995*